

HIESA. Arabako Batzorde Hiritarrak egungo baldintzak kritikatu ditu



KARLOS BIGURI

Miguel Angel Ruiz hiesaren kontrako Arabako Batzorde Hiritarreko jarduneko burua, atzo.

Hiesak jotako hainbat lagun pentsioak galtzen ari direla salatu dute gizarte taldeek

Espainiako Gobernuak onartu zuen dekretua «malgutasunez» aplikatzeko eskatu dute

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Arabako Batzorde Hiritarrak atzo salatu zuenez, hiesak garai batean eragindako egoera txarrak hobera egin izanaz baliatu da Espainiako Gobernuak, gaitxoek jasotzen zituzten pentsioei buruzko baldintzak gogortu eta «dirutza aurrezteko». Miguel Angel Ruiz Batzorde Hiritarreko jarduneko burua egin zuen atzo salaketa hori.

Gizarte ekimenaren arabera, Espainiako Gobernuak onartutako dekretua «oso era gordinen» aplikatzen ari da. Ondorioz, hainbat eta hainbat lagun, «gehien kaltetutako gaixoak» tartean, orain arte elbarritasunen arabera jasotzen zituzten pentsioak galtzen ari da.

Gaixotasunaren azken fasean diren askok ez dute kobratzen

Ruizen esanetan, baldintzak «gutziz gogorrak» dira. Adibidez, gaixotasunaren azkeneko fasean dauden asko pentsioa kobratu ezinik dabilta.

Dekretuaren eraginez, pentsioaren %65 jasotzeko betekizunak honako hauek dira: azken urtean gutxienik sei ospitaleratze jasan izana; eta gorputzak dituen defentsa tasa 50etik beherakoa izatea —Osa-

gordinean aplikatzen ari da, eta Gipuzkoan, berriz, «sentikortasun» gehiagoz.

Batzordeko buruak zorrotz kritikatu zituen, Espainiako Gobernuak mandataria ez ezik, Eusko Jaurlaritzakoak eta Araba eta Bizkaiko Diputazioetakoak ere. Gasteizko gobernuari egotzi zion «ezikusia» egiten duela, Espainiako Gobernuari dagokion auzia dela aitzakiatzat hartuta.

Arabako Batzordeko kidearen ustez, dekretuak ez ditu bategi aintzat hartu tratamenduak, ezta gaixotutakoaren profilak ere. Gauzak horrela, «malgutasunez» jokatzeari esker zuten.

sunerako Munduko Elkartearen arabera, 200 dituenak sistema immunologikoa ia txikituta dauka—.

Hiesaren Aurkako Batzorde Hiritarreko negoziaketari ekin zioten dekretuaren berri eduki bezain pronto. Horri esker, jorkabide hobeak hitzartu zituzten Espainiako Gizarte Segurantzarekin; baina aplikatzerakoan bazter utzi dituzte, dekretuaren maila handiagoa delako.

Ruizen argibideen arabera, Araban eta Bizkaian oso modu

INFEKZIO BERRIAK

Dei zuzena heterosexualei

Arabako Batzorde Hiritarrak dituen datuen arabera, iaz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hiesaren analisia egin zutenetako %62,8k harreman heterosexuala aipatu zuten arrisku iturri posible bezala. Miguel Angel Ruizen irudiko, estatistikek ondorio garbia dakarte: «Espainiako Estatu osoan behera egin du hiesaren kasu kopuruak; baina EAEn gora egin du, eta puntan jarraitzen dugu, zoritxarrez. Kontua da gorakada nabarmena dela heterosexualen artean, eta bistan da infekzio berriak esparru heterosexualetatik datozela». Horregatik, gaur egun inoiz baino gehiago, hiesari buruzko afera «guztiona» dela eta «sektore guztiek erne» egon beharra dutela gaineratu zuten. Horrez gain, Ruizek jakinarazi zuen urriaren 2an Arabako Batzorde Hiritarrak bilera egingo duela zuzendaritza egitura berritzeko.

EUSKARA

Lafitte izango da ardatza Euskaltzaindiak Baionan egingo duen biltzarrean

Aitor Renteria | BAIONA

Beñat Oiharzabalek, Jean Haritzelharrek, Aurelia Arkotxak eta Piarres Xarritonek Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. Biltzarra aurkeztu zuten atzo goizean Baionan. Biltzarrearen bigarren atala Lapurdin egingo da irailaren 20, 21 eta 22an. Baionako fakultatean literatura eta gramatika landuko dira lehen bi egunetan, hots, ostegunean eta ostiralean.

Baionako egitaraua «ez da gai zehatz baten inguruan egingo, bai berritzaileen inguruan baizik», adierazi zuen Oiharzabal euskaltzainak. «Adibidez, kolpe baten ondorioz mintzatzeko gaitasuna, hiztegia edo loturak egiteko ahala galdu duten gaitxoek kasuak landuko ditugu», gaineratu zuen.

Omenaldia Piarres Lafitteri

Aurelia Arkotxa idazle eta ikerlariak literatura saila aurkeztu zuen. *Euskal literatura: P. Lafitte sortu arte (1545-1901)* gaia landuko dute bi egunez, eta izen ezagun anitz izanen da bertan bilduko diren hizlarien artean.

Irailaren 21ean, arratsaldeko 17:30ean, omenaldia egingen zaio Piarres Lafitte kalonjeari, eta sorterrria zuen Luhusoko (Lapurdi) Salaberria etxean oroitarri bat ezarriko zaio.

Larunbatean Uztaritzeko Lapurdi aretoan omenduko dute Lafitte. Hizlariak Lafitten soslai ezberdinak landuko dituzte. Jean Haritzelhar Euskaltzaindiako buruaren ondotik, Jacques Mestelane *Les Eskual Herries* (Euskal Herri Zaleak) taldearen inguruan eta luhusoarraren alde politikoaren inguruan hitz egingo du. Izan ere, Lafitte Aitzina alderdi politikoaren eta izen bereko hilabete-kariaren sortzaile izan zen. Xipri Arbelbide euskaltzain urgazle eta idazleak *Herria* eta *Enbata* aldizkariaren inguruko gogoetak egingen ditu.

Bazkalondotik, Lafitteren gutunak, arima zuzendari gisa egindako lana eta hark sortutako sare intelektuala landuko dituzte hizlariak. Literatura Sailarekin bukatzeko, Piarres Xarriton euskaltzainak *Lafitte euskaltzaina* eta *Euskaltzaindia* gaia landuko du.



ANGELA MEJIAS

Beñat Oiharzabal, Jean Haritzelhar, Aurelia Arkotxa eta Piarres Xarriton, atzoko prentsaurrekoan.

Gipuzkoako enpresa batek

BEZEROARENTZAKO ARRETA SAILEAN

langilea behar du (Erref. «Arreta»).

ESKAKIZUNAK:

- Marketin edo merkataritza ikasketak edo arlo horretan lanean aritua izatea.
- Izaera sortzaile eta dinamikoa izatea.
- Bezero zein hornitzaileekiko harremanetarako gaitasuna.
- Ikuspegi komertziala.
- Euskal Herriko kultura ezagutzea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Antzeko lanpostuetan eskarmentua izatea.
- Informatikako ezagutza.

INTERESATUA BAZAUDE, LANPOSTUARI DAGOKION ERREFERENTZIA ZEHAZTUZ, BIDAL EZAZU CURRICULUMA ETA ARGAZKIA

DONOSTIAKO 1887 POSTA-KUTXATILERA IRAILAREN 21A BAINO LEHEN